

08 uztaila – 14.alea

Uztailaren 9ko Mahai parekidea

Uztailaren 9an 1.go parekidea izan genuen eta bertan landutako gaiak Hauek dira:

- **55 urtekoen akordioa:**

1953 urtetik baino lehen jaiotakoak(55 urte baino gehiago dituztenak) , gaur egun bakantea edo plaza dutenak eta titulazioa dutenak salbuespen moduan ez dute LEPa egin behar eta beraien lan postuetan mantenduko dira jubilatuta arte. Beraien lanpostuak ez dira LEP honetan aterako eta ezta ere hurrengoetan ere. Akordio honetan ere idatzita agertuko da ere, etorkizunean integratzen diren hezitzaileen egoera ere aztertuko dela.

- **Esleipenak:**

Aurten plazadunak direnak uztailean eta abuztuan plazari uko egiteko aukera izango dute. Adi hurrengo egunetan egutegia bidaliko dugulako. Den den, esleipen eguna Abuztuaren 27 jakin badakigu eta betiko lekuan egingo da.

- **Aurreikuspena:**

Hurrengo ikasturterako honako zentru hauek aurreikusten dira: Artziniega, Albistur, Larraul, Berango, Etxebarria, Mañaria, Gernika (Barrutia), Igeldo (urrian), Erreterian Goialde Haurreskola

Oraindik zehazteko noiz zabalduko diren: Bilbo (Cervantes), Getxo (2), Gorliz, Plentzia eta laudio.

Eta intergratuko diren zentruak: Bilbo (Miribilla), Astigarraga, Ibarra eta zigoitia. sartzeko negoziaketetan daude: Tolosa, eta Zuia.

Gogoratu matrikulazio behin betiko zerrendak egon arte aurreikuspenak baino ez direla. Datu zehatzagoak edukiko ditugunean berehala helaraziko dizkizuegu.

- **Errelebu kontratua:**

Aurtengo esleipenetan Gipuzkoan (Harri-berri Haurreskolan eta Landetxeko Haurreskolan) 2 plaza ordezkatzeko aterako dituzte. Ordezkapen hauek 5 urterako dira eta hartu baino lehen langabezian egon behar dela. Hau da INEMeko txartela izan behar du irailaren 1ean. Kontrato hauek bigarren txandan eskeiniko dira .

- **2008/09 egutegia:**

LABek proposatutako eredu aurrera eraman da non inposatutako jai egunik ez dagoen (urriak 12 eta abenduak 6).

informazio

www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatu.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 45 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org
GASTEIZ:	Bueno Montreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org

08 uztaila – 14.alea

- **LEP:**

Epaimahikideak nortzuk diren gaur argitaratu da boletinean eta hurrengo uztailaren 14an bilduko da. Epaimahaiak erabakiko du: azterketa data eta ordua, 2. froga zelakoa izango den eta LEPean parte hartuko dutenen behin betiko zerrenda onartu.

Galderen inguruan **LAB**eko kideok galderak erantzunekin zintzilikatzeko eskaera egin dugu.

Lan talde bat lanean dago galdetegia egiten eta ia amaituta daude. Galderak erantzunak uztailaren amaieran (24 rako amaituta) zintzilikatuko dituzte www.haurreskolak.net-en eta bertan eskuratu ahal izango ditugu.

- **165 egun:**

Haurreskoletara gutun bat bidaliko dute hurrengo puntuak azalduz: zer den, noiz ordainduko den, nori dagokion etab.

Dagokionari Haurreskolak partzuergoa ofizioz egingo dio. Hau da, eskerarik ez da egin behar. Kasu hauetan, langabezia eskatu daiteke. Irailean kobratuko da.

- **6 orduko arreta zuzena:**

Hurrengo irailean egingo den mahai parekidean adostuko da nola martxan jarri. 6 orduko arreta zuzena egiten hasi baino lehen partzuergoari jakinarazi behar zaio eta gauzagarria den zentroetan egin daiteke baliabide pertsonal gehiago suposatzen ez duen bitartean. Hala ere, Lan Hitzarmen berrian agertzen den neurri hau iraileko jarraibideetan azalduko da eta koordinatzaileen formakuntzan aipatuko da.

- **Formakuntza:**

LABek bere garaian eskatu zuen bezala Partzuergoak iraila-azaro bitartean LEPe 2. frogari (supuesto praktikoen) inguruan formakuntza berezia egingo du. Bajan edo eszedentzian egongo diren langileak ezin izango dute parte hartu. Horretaz aparte, 08-09 ikasturteko formakuntzako 50 orduak horrela banatuko dira:

- 25 ordu mintegietarako
- 20 ordu UEUK emandako ikastaroak egiteko (Apatxin 8 ikastaro eskainiko dituzte)
- 5 ordu manipulazio karnetaren ikastaroa egiteko, eginda daukanak, emergentzia plana egin du.

- **Kalitatea:**

Aurtengo ikasturtean kalitateko plana 12 haurreskoletan egin da. Urrian amaitzen da eta orduan balorazioa egingo da. (Kalitatea materialgintzaren inguruan egon da lanean hezitzaile talde bat txosten ereduak, eguneroko koadernoak...egiten) Hurrengo ikasturtean zehar haurreskola guztietan egingo da.

informazio

www.labsindikatua.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatua.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatua.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 45 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatua.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatua.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatua.org

08 uztaila – 14.alea

informazio

• **Inkesta:**

Dakizuenek **LAB**ek partzuergoan salatu zuen gurasoei bidalitako inkesta. Salaketa honen aurrean partzuergoak esan du hobekuntza prozesuan familien balorazioa neurtu nahi zuela. Izan ere, barkamena eskatu zigun ordezkariak sindikalarekin lehenago ez kontsultatzeagatik eta aterako diren emaitzak guri jakinaraziko dizkigute.

• **Borondatezko eszedentzia:**

Borondatezko eszedentzia hartzea pentsatuta daukatenak garrantzitsua da jakitea daukan plaza galtzen duela eta libre gelditzen lehenengo plazan birkolokatua izango dela. Gainera puntuaziorik ez du jasoko eta LEPEko formakuntza berezira ezin izango da joan

• **Euskara plana:**

Planean ez daudenak eskaera egin behar dute. Nahiz eta HEI ez izan, aukera egongo da eta egoera bakoitza aztertuko da. Ez ahaztu nahiz eta izena eman planean norberak IRALE-n egin behar du dirulaguntzen eskaera.

• **Koordinatzaileen formakuntza:**

LAB sindikatuak proposatu zuen bezala Partzuergoak onartu du koordinatzaileen formakuntza irailan izatea eta beraz, irailaren 2an koordinatzaileen formakuntza izango da. Koordinatzaileen izendapenaren araudia irailean landuko da ordezkariak sindikalarekin.

Lasai, Aurreprebision behin behineko zerrenda edukiko dugunean berehala helaraziko dizuegu.

Animo, azken txanpa dela eta!!!

www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/berezia

BAIONA:	13 Marengo karrika	tl. 05 59 59 50 20	• fax 05 59 59 50 21	baiona@labsindikatu.org
BILBO:	Rekalde Zumarkalea 62, 48010	tl. 94 470 69 26	• fax 94 470 69 09	irakaskuntzabizkaia@labsindikatu.org
DONOSTIA:	San Bladi 1, 20011	tl. 943 48 85 62	• fax 943 47 27 09	irakaskuntzagipuzkoa@labsindikatu.org
GASTEIZ:	Bueno Monreal 10, 01001	tl. 945 25 95 44	• fax 945 25 80 39	irakaskuntzaaraba@labsindikatu.org
IRUÑEA:	M. Zelaieta 75 2A atea, 31014	tl. 948 38 24 74	• fax 948 22 12 76	irakaskuntzanafarroa@labsindikatu.org